

Proiektu Eragile 3

BIPOLO

AZALPENA:

Ekimen publiko eta pribatuak bat egiten dute **Donostiako osasun teknologien garapenean**. Miramongo Teknologia Parkean nahiz bere inguruan (Ospitalea, Poliklinika...) osasunaren teknologiek loturiko proiektuak (Biomaterialak, Biomekanika, Bioinformatika, Telemedikuntza, Biomedikuntza, Gerontologia...) lantzen dira. Europar Batasunaren (VI Programa Markoaren markoan) , Estatuaren, nahiz EAEaren ustez garapen bidean dagoen alorra sustatu nahi du proiektuak. BIOBASK 2010 programaren bidez EAEk Biozientzien alorrean enpresak garatzeko estrategia landu nahi du 2010ari begira " *Nazioartean, biozientzien alorrean, enpresa jarduera existitzeak, alor bioteknologikoaren eta lanaren garapena eta aberastasunaren sorrera dakartza ondorioztat*". Alor pribatuak ez ezik Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak ere badute interesa aipatu alorra sustatzeko.

Ekimen horiek guztiak **ekintza programa batean** bildu beharko lirateke, gure lurraldean ez ezik gure inguruan eta urrutiko lurraldeetan ere (alor horretako enpresa gehienak azken lau urteotan sortu dira) berria den alorraren sustapena bideratzeko.


HELBURUAK: B-3 helburuan du, bereziki, eragina: *Osasunaren teknologia, aplikazio eta zerbitzu alorrean Donostia hiri erreferente bilakatzea nazioartean.*

DESKRIPZIOA:

Alor horretako sortze prozesua azkartzea da proiektuaren helburua, batez ere, osasunarekin loturiko bioteknologia dagokienez: biomedikuntza, bioinformatika, biomaterialak, gerontologia, genomika, biologia molekurrak, biomanagement...

Laguntza neurriak ezarriko lirateke, hasita dauden programak koordinatu egingo lirateke eta alorra sustatzeko ekimenak gauzatzeko beharrezkoak diren azpiegiturak eraikiko lirateke. **Osasunaren teknologien Berrikuntza, Garapen eta Ikerketa Zentro bat** eraikitzea litzateke helburua. Azalpen modura, aipatu Zentroak egingo litzuzkeen ekintzak zehaztuko ditugu:

- Instalakuntzen kudeaketa (alokairua, baliabide bilketa, laguntza pertsonala...)
- Ingurune horretan lan egiten duten agenteen sarea koordinatu, horretarako lan eremu ezberdinen arteko sinergien sorrera bultzatu eta identifikatu.
- Prestakuntza ekintzak (hitzaldiak, topaketak, mintegiak...) eta beste lurraldeetako profesionalekin topaketak antolatu (bideo-konferentzia, bioteka birtuala...).
- Ikerketa jardueren kudeaketa (patenteak, ikerketa laguntzaileak, bazkide teknologikoak...)



Proiektu Eragile 3

BIPOLO

- Ikerketa alorrekin loturiko proiektuen garapena errazteko ekintzak sustatu (osasunaren profesionalen edo unibertsitate inguruan proiektu posibleak antzematea eta garatzeko aukera ematea).
- Ikerketa eremuekin loturiko enpresen sorrera errazteko ekimenak sustatu (alor horretako enpresetan kudeaketa espezializaturako prestakuntza, eremu fisikoen erabilgarritasuna eta beste alorrekin harremanak sustatu...).
- Hiriarekin harremanak izateko ekintzak (Kultura Zentroak, unibertsitateak...), horretarako zentroan garatutako jarduera teknologikoen ezagutza eta hausnarketa humanistikoaren eta ezagutza zientifikoaren arteko elkarketa sustatuko da...
- Osasunaren eremuekin loturiko ikerketa sareen sorrera eta kudeaketa

Kirolarekin loturiko proiektuak gehi litezke, hau da Kirolari aplikatutako I+G+B Zentru bat sortzea